

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,  
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Zerbitzu Juridiko-Administratiboa

#### Vitoria-Gasteizko soinu-ingurunea hobetzeko ekintza-plana (PAMAS 2024) behin betiko onartzea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 27an egindako aparteko eta presazko bilkuran honako erabaki hau hartu du:

“Lehenengoa. Errota-Koroatzeko auzo elkarteak aurkeztutako alegazioa ezestea, hasieran onetsitako agiri teknikoaren edukia aldatzen ez duelako, baina aztertu beharreko zonak lehenesterakoan kontuan hartuko da.

Bigarrena. Vitoria-Gasteizko soinu-ingurunea hobetzeko ekintza-plana (PAMAS 2024) behin betiko onartzea.

Hirugarrena. Erabaki hau aipatutako auzo-elkarteari eta goian aipatutako administrazioei jakinaraztea.

Laugarrena. Erabaki hau EHAAn eta ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta interesdunek honako hauek aurkez ditzakete:

a) Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, egintza eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen adierazia ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, bere araudi espezifikoaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak dituen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Nolanahi ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera egoki irizitako beste edozein jardun dezakete interesdunek, hala badagokio. Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera argitaratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 10a

*Hiri Ereduren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta  
Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko-Administratiboko burua  
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ*